



<p>LEHENENGO ARIKETA: 2. GAI PRAKTIKOA ESKALA: ADMINISTRAZIO BEREZIA AZPIESKALA: TEKNIKOA MOTA: TEKNIKARIERTAINAK ESPEZIALITATEA: ARKITEKTO TEKNIKOA</p>	<p>PRIMER EJERCICIO: TEMA PRÁCTICO 2 ESCALA: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL SUBESCALA: TÉCNICA CLASE: TÉCNICOS/AS MEDIOS/AS ESPECIALIDAD: ARQUITECTO/A TÉCNICO/A</p>
---	---

Foru sail batek eraikin bat du, hainbat zerbitzutan sortzen den dokumentazioa artxibatzeko erabiltzen dena. Batez ere paperezko agiriak izaten dira.

Eraikina exentua da eta solairu bakar batean garatua dago, industrialde bateko sail zabal batean dago, aldameneko sailetatik bereizten duen 10 metro baino gehiagoko tartea duelarik. Habe, habexka eta zutabez osaturiko metalezko egitura du; estalkia, berriz, xafla laguntzailez eginiko hormigoizko forjatuz egindakoa da.

Higiezin horrek bi gune ditu: bat, artxibategiari berari dagokiona; eta, bestea, aurrekoari erantsita, administrazio-erabilerarako gune bat.

Artxibategiko guneak honako neurri hauek ditu: oinplanoan 50,00 m x 17,00 m, eta biltegitratzeko 4,00 metroko garaiera librea.

Artxibatze-sistema apalategi finkoetan egiten da, eta apal horiek esparruaren azaleraren % 50 hartzen dute, gutxi gorabehera.

Apalategien goiko aldera heltzeko, eskuzko eskailera erabiltzen dira.

Administrazio gunea goian deskribatutakoari erantsita dago eta 5,00 metroko garaiera librea du. Solairu bakarra du, 150 m²koa, eta honako antolaera hau du: bulegoak (60 m²), komunak (20 m²), dokumentuak kargatu eta deskargatzeko gunea (20 m²), eta instalazio gunea eta igarobideak (50 m²).

Artxibatu beharreko dokumentuen kopurua handitu egin denez, artxibategia eta bulegoa dauden eraikina handitzeko proiektu bat egin da. Hona hemen proiektu horretarako aurrekontuaren laburpena:

Un Departamento Foral dispone de una edificación con uso de archivo de la documentación generada en los distintos servicios, compuesta mayoritariamente por papel.

El edificio, exento y desarrollado en una única planta, se sitúa en un polígono industrial en una amplia parcela separada de los colindantes más de 10 metros, y está ejecutado en estructura metálica en vigas, viguetas y pilares, con cubierta a base de forjado de hormigón con chapa colaborante.

El inmueble consta de la zona de archivo propiamente dicha, y un área anexa dedicada a uso administrativo.

Las dimensiones del área de archivo son de 50,00 m. x 17,00 m. en planta, con una altura libre de almacenamiento de 4,00 metros.

El sistema de archivo es mediante estanterías fijas que ocupan aproximadamente el 50% de la superficie del ámbito.

El acceso a la zona alta de las estanterías se realiza mediante escaleras manuales.

La zona administrativa, anexa a la anterior y con una altura libre de 5,00 metros, se desarrolla en una sola planta, con una superficie de 150,00 m², distribuidos en zonas de oficina (60 m²), aseos (20 m²), carga y descarga de documentación (20 m²), y área de instalaciones y pasos (50 m²).

Debido al aumento de la documentación a archivar, se ha elaborado un proyecto de ampliación del edificio de archivo y oficinas que arroja el siguiente resumen presupuestario:



PROIEKTUA	2.310.200,08	PRESUPUESTO	2.310.200,08
GAUZATZEKO		EJECUCION	
AURREKONTUA		MATERIAL (en EUROS)	
(EUROTAN)			
GO + IE (% 13 + % 6)	438.938,02	GG + BI (13% + 6%)	438.938,02
Gastu orokorrak % 13	300.326,01	Gastos Generales 13%	300.326,01
Industria etekina % 6	138.612,00	Beneficio Industrial 6%	138.612,00
KONTRATAZIO	2.749.138,10	PRESUPUESTO DE	2.749.138,10
AURREKONTUA		CONTRATA	
SEGURTASUNA ETA	14.674,06	SEGURIDAD Y SALUD	14.674,06
OSASUNA		SUMA	2.763.812,16
BATURA	2.763.812,16	IVA 16,00%	442.209,95
BEZa % 16,00	442.209,95	TOTAL PRESUPUESTO	3.206.022,11
OBREN AURREKONTU	3.206.022,11	DE OBRAS	
OSOA			

Eraikina handitzeko proiektuak honako alderdi hauek jasotzen ditu: artxibategi gunearen azalerari 850 m2 gehitzea (horrela, egun duen azaleraren bikoitza izango du); gaur egungo artxibategiarekin fisikoki lotzea, esparru batetik bestera joateko bidea emateko; eta bulegoen gunean gaineko solairuarte bat egitea, 80 m2koa. Solairuarte horretara 0,80 metroko zabalera duen eskailera batetik helduko da eta eskailerak 28x19 cm-ko mailak izango ditu. Solairuarte horretan, artxibategiaren arduradunaren bulegoa, bileragune bat eta atsedenekua egongo dira. Garaiera libre 2,45 metro izango da.


HAU ESKATZEN DA:

- Proiektua egiteko kontuan hartu behar izan diren alderdirik garrantzitsuenak aztertzea, hain zuen ere, proiektuaren bideragarritasun txostenean aztertu behar direnak (eraikinaren egungo egoera, ea indarreko legeak betetzen diren eta abar).
- Eraikina handitzeko lanen kontratazio espedientea izapidetu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio deskribatzea.
- Obrak adjudikatzeko kontuan hartu behar diren alderdi garrantzitsuak.


Este proyecto de ampliación contempla el incremento de superficie de la zona de archivo en aproximadamente 850 m2 (duplicaría así la superficie actual); la conexión física con el archivo actual, para permitir la circulación entre ámbitos; la ejecución de una sobreplanta en el área de oficinas de 80 m2 de superficie a la que se accederá a través de una escalera de 0,80 m. de anchura, con peldaños de 28x19 cm., y que albergará el despacho del responsable del archivo y una zona de reuniones y descanso, con una altura libre de 2,45 metros.

SE PIDE

- Análisis de los aspectos más relevantes que han debido tenerse en cuenta de cara a la elaboración del proyecto, y que deben estudiarse en el informe de viabilidad del mismo (situación actual del edificio, cumplimiento de legislación vigente, etc.).
- Descripción de la documentación necesaria para posibilitar la tramitación del expediente de contratación de obras de ampliación del edificio.
- Aspectos relevantes a tener en cuenta de cara a la adjudicación de las obras



CONVOCATORIA PLAZA DE
ARQUITECTO TECNICO O
TEMA PRACTICO N° 2



Escuela de Arquitectura
Universidad del País Vasco
Leioa, Vizcaya

PROYECTO DE EJECUCION
AMPLIACION DEL EDIFICIO DE ARCHIVO DEL DEPARTAMENTOS

FECHA DE EJECUCION
19 02 05
FEBRERO 2005

ESTADO REFORMADO
PLANTA AMPLIACION

